

## **BIZITZA BAT BIDEAN AURRERA**

Maite Agirre Mujika, 12 urte

*Beasain*

### **Asteartea 20**

Nire buru gainetik “hegazkin zaratatsuak” pasatu dira gaur, hemen, nire herriko etxeen gainetik. Arrapalada bizian etxera joan naizenean ama negar batean ikusteak ezer onik ez zela gertatzen sentiarazi dit, eta seguruenik ez nembilela oker. Aitak gelara segituan joateko agindu didanean, ea zer gertatzen den galdetzekotan egon naiz, baina ez naiz ausartu.

### **Ostirala 23**

Ez!! Ezinezkoa da gerran egotea, nire aita eta herriko gizonak eramane nahi dituzte eta horregatik basoan ezkutaturik gaude. Baina nire ama etxean aurkitzen zelarik lehergailu bat bota dute eta

bertan geratu da. Begiak malkoz gainezka ditut eta ezin izan diet eutsi. Dagoeneko iluntzen ari denez, agurtu beharrean nago.

## **Asteazkena 28**

Herriko biztanleok nahiz eta basoan egon, aita ez da fido, ea norbaitek asaltatzen gaituen! Horregatik, gauean, besteak lo daudelarik, alde egin dugu. Nik hala ere, genuen guztia galdu dugunez, nire pardelean aurkitu ditudan bitxiak soinetik kendu eta gordetzen hasi naiz, baina ez diot aitari esan.

## **Igandea 1**

Gaur bidean aurrera gindoazela “hegazkin” asko pasa dira. Ni begira geratu naiz geldirik, baina aitak segituan besotik hartu eta bere ondora, sas-traka artera, bota nau. Ez dakit zergatik.

Gertatzen ari diren gauza askori ez diet zentzurik hartzen. Arratsaldean, adibidez, herri batera ailegatu gara, egonda nengoen bertan nire amarekin, azokan erosten, baina bere itxura bestelakoa zen. Orain suntsituta dago eta jendea han eta hemen sakabanatuta. Aita eta biok ondoko zuhaitz batzuen babespean jarri gara, baina berak lo hartu duenean, herrira gerturatu naiz. Bertako paisaia ez da gozoa izan. Nire zortzi urteak edukiko zituen neskaxa bat eta bere anaia izango zen mutikotxo bat ikusi ditut lurrean zabal. Iluntasunean bi urrezko zintzilikario ikusi ditut dizdiz eta hauek ere

hartu ditut. Batbatean, pauso eta hitz hotsak entzun ditut eta gerturatzean, beltzez jantzitako gizonkote batzuk zirela egiaztatu dut. Korrika batean aitarengana joan naiz eta ikusitakoaz jakinarazi diodanean, aurpegia zuri-zuri jarri zaio, eskutik heldu, ta basoan barrena isilik joan gara.

#### **Osteguna 4**

Gaurkoa ere amesgaiztoa izan da. Zarata hots izugarria entzun dugu eta ondoren "hegazkin" bat igarotzen ikusi dut arbola atzetik. Aurrera jarraitu dugunean, baserri bat ikusi dugu, oraindik kea zeriola leherketaren ondorioz. Aurrealdeko iturrian ura edan ondoren, baserria miatzera joan gara. Baina bertan zegoena ez ikusteko aitak begiak estali dizkit, baina beranduegi. Inoiz ez dut familia hura han lurrean elkarrekin ikusi izana ahaztuko. Amona zenak ahoan zuen bere gurutztea, nire pardelean sartu dudana beste bitxiekin.

#### **Ostilara 12**

Bidean zaldi bat ikusi dugu, zikin eta ikaraturik zegoen arren, indartsu dagoela dirudi. Aitak lasaitu duenean, gainean jarri gara bideari jarraitzeko. Lehengo batean ikusitako baserriaren larre batekoa izango zela pentsatu dut, bertatik oso urrun ez baixeunden, baina ez dut komentatu atzoko ikusizun lazgarri hura ez gogoratzearren. Zaldi honen gainean bidaiatu dugu orain aurkitzen garen lekuraino.

## **Asteazkena 22**

Goizean presaka jaiki behar izan dugu, pauso hots kezkarri batzuk entzun ditu nire aitak, eta azkar asko ihes egin dugu. Ezkutaturik geundela tiro hotsa entzun da geunden tokitik gertu, eta isiltasun luze bat ondoren.

Pausoak urruti entzun arte ez gara arnasa harztera ere ausartu. Zaldiaren bila joatea erabaki dugu, baina hau lurrean zerraldo zegoen.

Haserrea nagusitzen da nire barnean, ez bait dakit, zer txarkeria, zer oker egin duten bai nire amak, herriko biztanleek, baserriko familia hark, zaldia eta baita haiek bezala gerran hiltzen ari diren beste edozein pertsonak?

## **Osteguna 30**

Gaur basoan galdu gara, eta norantza abiatu ez genekiela, emakume zahar bat guregana hurbildu da. Bustirik eta galduta ikusi gaituenean, etxera gonbidatu gaitu. Bertan bere senarra gerrara eramantutela konturatu naiz, hala esan baitigu, eta bazirela hilabeteak ez duela bere berririk.

## **Asteartea 5**

Goizean goiz jaiki naiz gaur. Hasieran ez nekien non aurkitzen nintzen, baina lasaitutakoan Sora emakumearen etxean nagoela gogoratu naiz. Altxatutakoan, komunera joan naiz eta ondoko gelan norbait hizketan zegoela iruditu zait. Ate zirrikitutik begiratzean, andrea dela ohartu naiz.

Eskuetan gizon baten argazkia du, bere senarrarena ziurrenik, eta errezatzen ari da negar malkotan. Tristura ematen dit emakume honek, nire ama zena gogorarazten didalako, eta momentu batez, nire lehengo urteak gogorarazi dizkit. Baina bat-batean desagertu dira oroitzapenak, bera dagoeneko ez dagoela badakidalako.

### **Ostirala 15**

Iluntzean, andrearen etxetik joan gara eta aitak ohartxo bat ipini dio eskerrak emanaz. Oinetakoak ere sekatu eta garbitu dizkigula konturatu naiz, arropaz gainera, eta nire pardeletik urrezko gurutzea atera eta ondoan utzi diot, seguruenik etekin ona aterako diolako.

Gero aitarekin baserri hartatik urrunduta gara.

### **Astelehena 26**

Hotza nagusitzen hasi da, eta euria gogotik ari duenez, hezurak ere izoztuta dauzkat. Horrela zailagoa da basoan zer jatekorik topatzea. Hala ere aurrera gelditu gabe goaz, baina ez dugu helmugarik, izkutatzea da egiten duguna, beldurratetik izkutatu.

### **Larunbata 6**

Herrixka bat topatzea izan da gaurko poza. Jendea etxeetan dago ateratzeko gai ez direla. Bestela itxura onean dago, nire herria zegoen bezala.

Lasaitasuna ordea, motza izan da. Gizon talde bat etorri da bere armekin eta aurrean jartzen zaien hura, tiro batez akabatzen dute. Nire begiekin ikusi dut hau, eta nire aitarekin ziztu bizian alde egin dut. Izugarritzko zortea izan dugu, inork harrapatu ez gaituelako, baina herritarrak bai, han-hemenka daude pertsona pila bat.

Arraroena nik negarrik ez egitea izan da, baina hainbeste atsekabe ikusi ondoren, nork egin dezake negarrik?

### **Asteazkena 10**

Aurrera goazelarik, orain dela egun batzuk, herrixka bat suntsitzen ikusi genuen gizon talde berdinarekin egin dugu topo, eta beranduegi, gainera, korrika ihes joateko. Aita besotik hartu eta atzera bagira jarri dute, beste gizonak inguratuta dutela beren armekin. Aginduak ematen dituen gizonarekin, buruzagiarekin, hitzegitera joan naiz ni, egoera hura ikusirik.

Bueltatuakoan, aitarekin batera, elkarrekin joan gara. Bera da oraingoan ulertzen ez duena, eta nik umetxo baten negarrek edonor biguntzen dutela esan diot, hustutako nire pardela izkin batean bota dudalarik.

Orain, orain bai, badakit gure helmuga zein den: lasaitasuna, bakea da aitak eta biok itxaropenez bilatzen dugun urruneko helmuga.